BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4640

AGINDUA, 2012ko urriaren 5ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordeko lehendakari-kargua Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari eskuordetzen diona.

Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordea sortu eta arautzeko den abuztuaren 21eko 161/2012 Dekretuaren 3.1 artikuluak dioenez, unibertsitate-arloan eskumena duen saileko burua edo hark izendatutako ordezkoa izango da aholku-batzordeko lehendakari.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 13 artikuluan honako hau ezartzen da: administrazio-organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira.

Horrenbestez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen irailaren 14ko 233/2010 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluak eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 13. artikulua aintzakotzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordeko lehendakari-kargua Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari eskuordetzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 5a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.